

## GOBERNU BATZARRA

2017. 01. 09

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren bederatzian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peón Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	2.-Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektuan jasotako obren 2. ziurtagiria-likidazioa (16-21/02/11.16 faktura).
<b>Idazkaria:</b>	
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	3.-Iñauteriak 2017. Karroza eta konpartsen arautegia.
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	4.- Etxez etxeko zerbitzua: Ilarkiren faktura.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko abenduaren 26an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.-Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektuan jasotako obren 2. ziurtagiria-likidazioa (16-21/02/11.16 faktura).

Tolosako Udalak Construcciones Echaide, S.A., enpresari esleitu zion "Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektua"-n jasotako obren kontratua, eta 142.030,38€ izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
1. ziurtagiria.....	16-21/01/10.16.....	53.654,93€
GUZTIRA.....		53.654,93 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako seigarrena eta aldi berean likidazioa, honakoa da:

2. ziurtagiria..... 16-21/02/11.16..... 84.069,46€

Azken ziurtagiri hau ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea "Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektua"-n jasotako egiteko obren 2. ziurtagiria, 84.069,46€koa.

**BIGARRENA.**- "Ferialekuan barne-erreforma egiteko proiektua"n jasotako egiteko obren likidazioa onartzea, 137.724,39€koa

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari eta Kontuhartzaitzari.

### **3.- Iñauteriak 2017. Karroza eta konpartsen arautegia.**

Kultura, Festak eta Gazteria Batzordeak aurkeztu duen Iñauteriak 2017 Karroza eta konpartsen arautegia ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea aurkeztutako Iñauteriko carroza eta konpartsen lehiaketaren oinarriak. Oinarriei lagundu behar zaie eranskin modura alde zurratik onartuta dauden irizpideak eta banatu daitekeen diru kopurua.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari.

### **4.- Etxez etxeko zerbitzua: Ilarkiren faktura.**

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako **69.955,02** euroko faktura onartzea, abenduko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**